

MAISU-MAISTREN KIDEGOAN SARTZEKO ETA KIDEGO HORRETAN ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO 2022ko HAUTAPEN PROZEDUREI BURUZ MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

DEIALDIARI ERAGITEN DION ARAUDIA (BERRIA: 2022/03/22)

Zein arau-esparruk eragiten dio deialdiari?

Deialdian argitaratutakoa eta NAOn argitaratu zenean indarrean zegoena (2021-12-21)

Kontuan hartu behar al da 2021eko abenduaren 21a (deialdia argitaratu zen eguna) baino geroagoko arau-aldaketa?

Ez, ez dira kontuan hartu behar ondorengo aldaketak.

Aplikatu behar al dut Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretua?

Ez, deialdia argitaratu ondorengo araua baita. Deialdia argitaratzen den egunean indarrean dagoen arau-esparrua aplikatu behar da.

Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua aplikatu behar al dut?

Ez, deialdia argitaratu ondorengo araua baita. Deialdia argitaratzen den egunean indarrean dagoen arau-esparrua aplikatu behar da.

Zein araudik arautzen ditu oposizioko gai-zerrendak?

Deialdiaren II. eranskinak gai-zerrendak arautzen dituen araudia jasotzen du.

DEIALDIAREN EBAZPENA ETA HAREN BARNEAN SARTZEN DIREN PROZEDURAK

Zein ebazpenek onetsi ditu Maisu-maistren kidegoan sartzeko eta kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko hautapen prozedurak?

Abenduaren 2ko 324/2021 Ebazpenak, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariarenak.

Zein egunetan argitaratu zen ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean?

2021eko abenduaren 21ean, asteartearekin.

Zein dira parte hartu ahal izateko bi prozedurak?

Hona hemen parte hartu ahal izateko prozedurak:

- Sartzeko hautapen prozedura, bi aukera hauek dituen:
 - Txanda irekia

- Erreserbako txanda, desgaitasuna dutenendako.
- Kidego berean espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.

Nork har dezake parte sarbide irekiko hautapen prozeduran?

Kasu bakoitzean deialdiko 1. tituluko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza berariazkoetz gain, baldintza orokorrak betetzen dituzten guztiek.

Betebehar guztiak eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean bete beharko dira, urtarrilaren 25ean, beraz, eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte betetzen jarraitu.

Nor aurkez daiteke desgaitasuna duten pertsonendako erreserbako txandan deitutako lanpostuetara?

Deialdian sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzeaz gain, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten izangaiak, betiere irakasle lanerako oro har eskatzen den gaitasun funtzionala badute, eta kidegorako eta lortu nahi den espezialitaterako behar dena ere bai.

Nork har dezake parte espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran?

Zein kidegotakoa den eskuratu nahi duen espezialitatea, kidego bereko karrerako funtzionarioek, Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko destinoa dutenek. Eszedentzian dauden funtzionarioen kasuan eta, orobat, kanpoko lanpostuei atxikita edo antzeko egoeraren batean daudenen kasuan, ulertuko da destinoaren inguruko betebeharrak azkeneko ikastetxeari dagokiola. Era berean, eskuratu nahi den espezialitatea zein den, bertan txanda irekian sartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzea.

Irakasle funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu baldin eta behin betiko destinoa beste hezkuntza administrazio batzuetan badute eta Foru Komunitatean zerbitzu eginkizunetan edo antzeko egoeran badaude.

KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA BETEBEHARREN ETA MEREZIMENDUEN FROGAGIRIAK AURKEZTEA

Zein da hautapen prozeduretan parte hartzeko eskabidea eta betebehar eta merezimenduen frogagiriak aurkezteko epea?

2021eko abenduaren 22tik (asteazkena) 2022ko urtarrilaren 25a arte (asteartea), bi egun horiek barne direla. Eskabideak aurkezteko epea urtarrilaren 25ean bukatzen da, asteartearekin, 23:59an.

Zein egunetan bete behar dira onartuak izateko betebeharrak?

2022ko urtarrilaren 25ean.

Zein merezimendu baloratuko dira lehiaketaldiko merezimenduen baremoan?

Betebeharrekin gertatzen den gisa berean, 2022ko urtarrilaren 25erako lortu diren merezimenduak baizik ez dira baloratuko, betiere izangaiak eskabideak aurkezteko epearen barnean aurkeztu baditu.

Zer da eskaneatutako kopia bat deialdi honi dagokionez?

Dokumentu bat eskaneatzearen emaitza da. Ez da nahitaezkoa dokumentua konpultsaturik aurkeztea, ezta kopia elektronikokautoturik ere. Administrazioak edozein unetan eska ditzake jatorrizkoak.

Kopia elektronikokautoturik aurkeztu behar da?

Ez. Ez da nahitaezkoa. Ez da beharrezkoa kopia elektronikokautotutak izatea betebeharrak edo merezimenduak justifikatzeko aurkezten den dokumentazioa.

Parte hartzeko eskabidea Erregistro Orokorren bidez tramitatzen ahal dut?

Ez. Aplikazio berariazkoen bidez baizik ez da tramitatzen ahal:

Sartzeko hautapen prozedurarako:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/2022ko-Maisu-maistren-Kidegoan-sartzeko-hautapen-prozedura>

Espezialitate berriak eskuratzeko prozeduraren probarako:

http://www.navarra.es/home_es/ServiciosEmpleado/ficha/17129/Concurso-oposicion-para-el-ingreso-y-adquisicion-de-nuevas-especialidades-en-el-Cuerpo-de-Maestros-2022

Zer dokumentu mota eransten ahal dut eskabide telematikoan?

Onartutako luzapenak hauek dira: PDF, JPG, JPEG, TIFF. Ezin da fitxategi konprimaturik erantsi, ezta Worden edo antzekoetan idatzitako agiririk ere.

Zer gertatuko da dokumentazio gehiago sartu nahi badut edo aurretik aurkeztutakoa aldatu nahi badut?

Aplikazioak aurrekoa deuseztatuko du eta baztertu egingen dira lehendik aurkeztutako datu eta dokumentuak. Parte hartzeko, lagun bakoitzeko eskabide bat hartuko da kontuan, eta aurkeztutako azken eskabidea izanen da baliozkoa.

Deialdian bada desgaitasuna duten lanpostuetarako erreserbarik gabeko espezialitate bat, Entzumena eta Hizkuntza gaztelaniaz, hain zuzen ere. Nola tramitatu behar dute beren eskabidea ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek?

Eskabidea desgaitasuna dutenendako erreserba txandaren bidez tramitatu behar da; Administrazioak ofizioz aldatuko du txanda irekira, eskaturiko egokitzapenak kontuan harturik aldatu ere.

AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEAK

Eskabidearekin batera, eskatu nahi den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainagiri bat aurkeztu behar da?

Bai. 41,60 euro ordaindu behar dira eskatzen den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, eta ordainketa-gutun bakoitzean adierazi behar dira espezialitatea eta hizkuntza.

Zer gertatzen da ordainagiria aurkezten ez bada?

Ordainagiria aurkeztu ezean, izangaia bazterturik geldituko da. Izangaia ordainagiria aurkezten ahalko du akatsak zuzentzeko epean.

Nola ordaindu behar dira azterketa egiteko eskubideak (Nafarroako Foru Komunitatean zein Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo)?

Azterketa eskubideak nahitaez ordainketa-gutunaren bidez ordainduko dira edozein banku entitatetan. Ordainketa-gutuna esteka honetan dago:

<https://hacienda.navarra.es/ingresosnotributarios/frm704.aspx?cn=04OPOSMAES>

Izangaiek Interneteko webgune horretan sartu eta ordainketa-gutuna bete behar dute beren datuekin, eta "kontzeptua"ren azalpen gisa parte hartu nahi duten kidegoa, espezialitatea eta hizkuntza jarriko dituzte. Gero, ordainketa-gutuna inprimatu eta ordainketa eginen dute edozein banketxetan. Ordainketa modu telematikoa ere egin daiteke, eta ordainagiria deskargatu.

Bi kasuetan, hautapen prozeduretan onartua izan ahal izateko, izangaia azterketa eskubideen ordainagiri(k) erantsi behar dute di(zki) eskabideari, alegia, ordainagiri bat kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.

Zein dira ordainagirian ezinbestez agertu behar diren datuak?

Izangaia "izen-deiturak" eta parte hartzeko hautatzen dituen "espezialitatea eta hizkuntza".

Zer gertatuko da azterketa eskubideen ordainagirian ageri ez bada izangaia identifikatzea ahalbidetzen duten datuetako bat?

Izangaia bazterturik geldituko da. Izangaia ordainagiria aurkezten ahalko du akatsak zuzentzeko epean.

Zer gertatuko da azterketa eskubideen ordainagirian ageri ez bada espezialitatea?

Izangaia espezialitate eta hizkuntza batean baino gehiagotan parte hartzea eskatzen badu, baina guztien ordainketa ez badu justifikatzen eta espezialitatea eta hizkuntza aurkeztutako ordainketa-gutunetan zehazten ez baditu, Administrazioak ofizioz onetsiko du izangaia kasuan kasuko espezialitateetan, deialdiko I. tituluko lehendabiziko oinarriko 2. puntuari jasotzen den hurrenkeran. Espezialitate bakar batera aurkeztuz gero, espezialitate horretan onartuko da.

Nor daude tasak ordaintzetik salbuetsita?

a) % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenak. Tasen ordainketatik salbuetsita egoteko, desgaitasun-gradua egiaztatzeko ziurtagiria edo irizpena aurkeztu beharko da, organo eskudunak emandakoa.

b) Hautapen deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak, 2021eko abenduaren 21a baino lehenago.

Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egoteari buruzko baldintza kasuan kasuko enplegu bulegoak emandako ziurtagiriaren bidez frogatuko da, non agertuko baita zer egunetan inskribatu zen eskatzaile gisa.

PROZEDURARAKO ONARPENA

Zer jarduketa egin behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean?

Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak deialdiaren web-fitxan argitaratuko du [onartuen behin-behineko zerrendak onesten dituen Ebazpena](#), eta haren barnean honako hauek:

- Prozedura bakoitzean onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak, kidego, espezialitate eta hizkuntzaren arabera. Zerrenda horietan parte-hartzaileen izen-deiturak eta bakoitzaren prozedurak azalduko dira, bai eta, baztertuz gero, horren arrazoiak ere.

- Hala behar bada, gaztelania-maila neurtzeko proba egin behar duten izangaiei behin-behineko zerrenda.

Behin-behineko zerrendak onesten dituen ebazpena argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin zaiela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Izangaiek hamar egun baliouduneko epea izanen dute, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko eta, kasua bada, baztertua edo ez onartua izatea eragin duen akatsa zuzentzeko. Era berean, beren datu pertsonalak ematean akatsak egin direla ohartu diren izangaiek epe horretan berean adierazten ahalko dute. Erreklamazioak telematikoki aurkeztuko dira [deialdiaren web-fitxan](#).

Behin-behineko zerrendei jarritako erreklamazioak ebatzi ondoren, **onartutakoen behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpena** emanen da, eta hartan sartuko:

- Prozedura bakoitzeko onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak, kidego, espezialitate eta hizkuntzaren arabera.

- Hala behar denean, gaztelania-maila neurtzeko proba egin behar duten izangaien behin betiko zerrenda.

Ebazpen hori [deialdiaren web-fitxa](#)n argitaratuko da.

Behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpena argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin zaiela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Espezialitate batean baino gehiagotan aurkez naiteke hizkuntza berean?

Espezialitate eta hizkuntza batean izena eman eta onartzeak **ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen espezialitate eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea**, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketak ondorio hori baldin badakar, salbu eta espezialitate bera baldin bada baina beste hizkuntza batean. Administrazioak ez die tasarik itzuliko espezialitate desberdinetarako hautagaiei, baldin eta antolakuntza-arrazoiengatik ezinezkoa bada horiek garatzea.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Programazio didaktikoan nahitaezkoa da hezkuntza-arreta ez-presentziala aipatzea?

Hautapen prozedura arautzen duten ebazpenetan ezartzen dira oposizioko probak baloratzeko irizpideak, programazio didaktikoek bete beharrekoak barne. Beraz, izangai bakoitzak erabakiko du egoki iruditzen zaizkion egokitzapenak eginen dituen, bai programazio didaktikoan, bai proben gainerako zatietan, bere irizpidearen arabera.

Haur Hezkuntzako etapan, curriculumeko arlo bat baino gehiago oinarri dituzten programazio didaktikoak aurkez daitezke?

Bai, Haur Hezkuntzako etapako curriculumari buruzko programazio didaktikoetan curriculumaren hainbat arlo sar daitezke.

Entzumena eta Hizkuntza edo Pedagogia Terapeutikoa espezialitateetako programazio didaktikoen kasuan, aurkez daiteke Urteko Banakako Plana?

Bai. Espezialitate horien kasuan, urteko lan-plan bat aurkezten ahalko da, espezialitate horretako irakasleek irakaskuntza-eskumena esleiturik duten maila edo etapetako bateko ikasturte baterako hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituen ikasle batentzat.

Zer ulertzen da deialdiak esaten duenean izangaiak egindako programazio didaktikoa dela? (BERRIA 2022/03/22)

Programazio didaktikoak izangai eta langile bakoitzaren jatorrizkoa izan behar du, banaka egina.

Programazio didaktikoa/unitate didaktikoa edozein ikastetxeri buruzkoa izan daiteke? (BERRIA 2022/03/22)

Izangai bakoitzak bere Programazio Didaktikoa eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko bat barne hartzen duen Unitate Didaktikoak aipatu beharko ditu, baita aurkezten den espezialitatearen hizkuntza-eredua ere.

KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURA

Zein dira hautapen prozeduraren faseak?

Hautapen prozesuak bi aldi izanen ditu: batetik, lehiaketaldia, non izangaien merezimenduak baloratuko baitira deialdi honen I. eranskinean ageri den merezimendu baremoaren arabera; eta bestetik, oposizioaldia, non kontuan hartuko baitira kasuan kasuko irakaskuntza espezialitateko berariazko ezagutzak, gaitasun pedagogikoa eta irakaslanerako behar diren tekniken ezagutza. Halaber, praktikaldi bat egin beharko da, hautapen prozeduraren parte izanen dena.

Zein dira oposizioaldiko probak?

Oposizioaldiak bi proba izanen ditu, biak ala biak baztergarriak. Horietako bakoitzak bi zati izanen ditu:

Lehenbiziko probak zati hauek izanen ditu:

- A zatia: proba praktikoko bat, deialdiaren zazpigarren oinarriko 2.1.1 atalean xedatutakoari jarraikiz.
- B zatia: idatzizko ariketa bat, deialdiaren zazpigarren oinarriko 2.1.1 atalean ezarritakoari jarraikiz.

Bigarren probak zati hauek izanen ditu:

- A zatia: programazio didaktiko bat aurkeztea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.2 atalean xedatutakoari jarraikiz.
- B zatia: unitate didaktiko bat prestatzea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren bederatzigarren oinarriko 2.1.2 atalean xedatutakoari jarraikiz.

Noiz hasiko da oposizioaldia?

Oposizioaldiko probak ez dira 2022ko maiatzaren 10a baino lehenago hasiko. Aurkezpen-ekitaldia egingen da (zazpigarren oinarriko 2.1 puntua).

Zein hizkuntzatan egin behar dira oposizioaldiko probak?

Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legean xedatutakoarekin bat, espezialitatea zein hizkuntzatan emanen den edo zein hizkuntza-espezialitate den, hautapropa guztiak hizkuntza horretan egin beharko dira.

Zein dira oposizioaldiko proba praktikokoaren ezaugarriak?

Informazio hori deialdiaren III. eranskinean jasota dago.

Lehen ariketako bigarren probara aurkez naiteke lehen probara aurkeztu ez banaiz?

Ez, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2 puntuak honako hau baitio: "Izangaiei dei bakarra egingen zaie epaimahaien aurreko jarduketak egiteko, eta agertzen ez direnak hautapen prozesutik kanpo geldituko dira." Beraz, ariketa batera ez agertzeak hautapen-

prozesutik kanpo gelditzea dakar. Izangai bat ez bada aurkezten oposizioko lehenbiziko ariketara (eskuarki, lehen probako B zatia), ezin da aurkeztu lehen probako bigarren ariketara.

Zer ulertzen da deialdian esaten bada izangaiak egin duela programazio didaktikoa?

Programazio didaktikoen eta, ondorioz, unitate didaktikoen izangai bakoitzaren originalak eta pertsonalak izan behar dute, eta banaka egin behar dira.

Zer eduki izan behar dute programazioak eta unitate didaktikoak?

Informazio hori deialdiaren IV. eta V. eranskinetan dago, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat. Izan ere, errege dekretu horrek onesten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sartu, eta espezialitate berriak lortzeko erregelamendua.

Zein formatu eta luzera izan behar ditu programazio didaktikoak?

Programazio didaktikoak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafika eta tauletan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barnean. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte. Zehaztapen horiek V. eranskinean ikus daitezke.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO I. ATALA: IRAKASLE LANETAN IZANDAKO ESPERIENTZIA

Nola justifikatuko dira Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuarendako egindako zerbitzuak?

Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko ditu izangai guztiek Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuan egindako zerbitzuak. Hartara, ez da beharrezkoa inolako agiririk eskatzea edo aurkeztea.

Nola justifikatuko dira beste hezkuntza administrazio batzuetan egindako zerbitzuak?

Zerbitzuei buruz hezkuntza administrazio horiek egindako ziurtagiriaren bidez. Kasu guztietan adierazi behar da zein kidegotarako izendatu zen, edo haren kode ofiziala, baita zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ere. Ez dira onartuko jabetza hartzeko eta zerbitzuak uzteko orriak.

Nola justifikatuko dira ikastetxe publikoez bestelako ikastetxeetan egindako zerbitzuak?

Ikastetxearen ziurtagiria edo hura emateko eskumena duen organoarena beharko da, lurraldearen arabera ikastetxe horretan eskumena duen hezkuntza administrazioko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ontzat emana. Bertan espezialitatea, hezkuntza maila eta zerbitzuen benetako iraupena agertu behar dira, hasi eta bukatu zireneko data zehatzak adierazita. Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak interesdunei eskatuko die lan bizitzari buruzko txosten eguneratua eta kontratuak aurkez ditzatela.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren oniritzia, Nafarroako ikastetxeetarako, sie/hiz@navarra.es helbide elektronikoaren bidez tramitatuko da. Tramite hori Nafarroan nola egin behar den ez badakizu, dei ezazu 848 422 65 42 telefonora edo idatz ezazu sie/hiz@navarra.es helbide elektronikora.

Nola justifikatuko dira Espainiako zein atzerriko unibertsitateetan egindako zerbitzuak?

Unibertsitatearen ziurtagiria beharko da, honako hauek adieraziko dituen: zerbitzuak noiz hasi eta bukatu ziren, data zehatzak adierazirik, eta zerbitzu horiek irakasle gisa izan zirela.

Nola justifikatuko dira atzerrian egindako zerbitzuak?

Dagokion herrialdeko Hezkuntza Ministerioak edo Espainiar Estatuak Atzerrian duen Administrazio Orokorrek egindako ziurtagiriaren bidez frogatuko dira. Bertan honako hauek adierazi beharko dira: irakatsi den hezkuntza maila eta irakasgaia, zerbitzuen iraupena eta horiek hasi eta bukatu zireneko data zehatzak. Ziurtagiri horiek gaztelaniazko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.1 ATALA: ESPEDIENTE AKADEMIKOA

Eskatzen den tituluaren espediente akademikoan ez bada batez besteko nota agertzen, espedientea baloratuko da?

Aurkeztutako espediente akademikoa soilik baloratuko da batez besteko nota agertzen bada. Horregatik, beren espediente akademikoetan batez besteko nota ez duten izangaiak hura kalkulatzeko eskatu beharko diote dagokion unibertsitateari.

Espediente akademikoaren batez besteko nota aurkeztea ezinezkoa bada, titulazioari dagokion ikasketa planaren ondorioz ikastetxeak hura kalkulatzetik ez duelako, irizpide hauen arabera kalkulatu da espediente akademikoaren batez besteko nota:

- Irakasgaien arabera antolatutako ikasketa planak direnean, batez besteko nota ateratzeko, puntuazio guztien batuketaren emaitza zati irakasgaien kopurua egiten da. Kredituen bidez antolatutako ikasketa planak direnean, izangaiaren espediente

akademikoaren batez besteko puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: izangaiak lortutako kredituen batura, horietako bakoitza kasuko kalifikazioen balioarekin biderkatuta, zati guztira lortutako kreditu kopurua.

- Irakasgaien puntuazioak zenbaki bidez adierazita ez badaude, lehen aipatutako baliokidetasunak aplikatuko dira.
- Ondorio horietarako, praktiketako nota beste irakasgai bat balitz bezala baloratuko da.
- Espedientean irakasgai baliozkotuak edo "gai" kalifikazio dutenak azaltzen badira, ez dute inolako baliorik izanen, lehiatzaileak aurkezten ez badu baliozkotutako edo "gai" gisa kalifikatutako irakasgaiaren zenbakizko balioa azaltzen duen ziurtagiria.
- Ikasketa planaren barrenean ez dauden prestakuntza jardueren bidez lortutako kredituak ez dira zenbakitara ekarriko, eta ez dira aintzat hartuko ikasketa espedientearen batez bestekoa ateratzeko.

Eskaerak aurkezteko epean batez besteko nota ez duten ikasketa-espedienteak aurkeztu badira, haiek zuzentzeko eskatuko da merezimenduen behin-behineko balorazioak argitaratzen direnean.

Espediente akademikoaren **batez besteko nota aurkeztea ezinezkoa bada**, izangaiak bi ziurtagiri hauek igorri beharko ditu:

- Ziurtagiri akademiko pertsonala.
- Ikasketak egin zituen ikastetxearen ziurtagiria, titulazioari dagokion ikasketa planaren ondorioz ikastetxeak batez besteko nota kalkulatzetik ez duela adierazten duena.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.3 ATALA: UNIBERTSITATEKO BESTE TITULAZIO BATZUK

Gradu tituluak baloratzen dira?

Bai. Unibertsitateko gradu titulu ofizialaren kopia elektronikoa aurkezteak balioko du, bakar-bakarrik, bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa aitortzeko, salbu eta behar den ikasketa-ziurtagiria aurkezten bada, unibertsitateko gradu titulu ofiziala lortzeko kreditu guztiak egin eta gainditu direla egiaztatzen duena; kasu horretan, 2.3.1 azpiatalari (lehen zikloko titulazioak) dagokion puntuazioa ere emanen zaio.

Hori hala izanik ere, gradudun titulua ez da baloratuko baldin eta titulu hori lortu bada ikasketa-arlo bereko unibertsitateko titulu bat (diploma edo lizentzia) daukatenentzat bideratutako egokitzapen ikastaro bat eginez. Titulu berari dagozkion aipamenak ez dira gradutzat hartuko.

Titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak baloratuko dira?

Ez, ez baitira titulu desberdintzat hartzen.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.1 ATALA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Zein prestakuntza ikastaro baloratzen dira?

Soilik etengabeko prestakuntza eta hobekuntza ikastaro gaindituak, loturik egonez gero eskuratu nahi den espezialitatearekin, eskolaren antolaketarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzako soziologiarekin, eta antolatu badituzte hezkuntza eskumen osoa duten administrazio publikoek edo unibertsitateek; edo hezkuntza administrazioekin elkarlanean ari diren entitateek antolatutako jarduerak badira eta etengabeko prestakuntza planean sartuak, edo kasuan kasuko hezkuntza administrazioak onartuak.

Zein puntuazio dagokie?

0,020 puntu emanen dira 10 prestakuntza orduko. Ondorio horietarako, prestakuntza jarduera guztietako orduen batuketa egingen da, eta ez da puntuaziorik emanen 10 ordutik beheko hondarrarengatik.

Zer agiri aurkeztu behar dira prestakuntza ikastaroak justifikatzeko?

Ikastaroen ziurtagiria, kasuan kasuko erakunde edo zentroak eginga, non ikastaroaren kreditu edo orduak espresuki adieraziko baitira. Etengabeko prestakuntzaren planeko jardueretan edo hezkuntza administrazioak onartu dituen ziurtagirian espresuki adierazi beharko da kasuan kasuko jarduera plan horretan sartuta dagoela edo hezkuntza administrazioak onartua dela; bestela, hori gabe, homologazioa edo onarpena erantsi beharko da.

Ziurtagirian orduak adierazi ordez, kredituak adierazi badira, zein da 10 orduren baliokidetasuna kreditutan?

Ulertuko da kreditu bat 10 ordu direla.

Baloratuko dira ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak?

Ez.

Baloratuko dira prestakuntza ikastaroak edo jarduerak, haien deialdiaren egileak direnean hezkuntzakoak ez diren administrazioak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak, etengabeko prestakuntzarako itunak sinatuak dituztenak?

Ez, jarduera sartua ez bada hezkuntza administrazioek sustaturiko prestakuntza plan batean edo haien onarpena ez badu; batean nahiz bestean erantsi beharko da hezkuntza administrazioak egindako homologazioa edo aitortza.

Irakasle gisa emandako ikastaroak baloratuko dira?

Ez.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.3.2. ATALA: HIZKUNTZEN TITULAZIOAK

Zein hizkuntza baloratuko dira baremoko azpiatal honetan?

Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana baino ez dira baloratuko.

Zein ziurtagiri baloratuko dira?

Euskararen, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren B2, C1 edo C2 maila egiaztatzen duten ziurtagiriak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabekoak (Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Agindua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 10eko 3/2018 Foru Aginduak aldaturikoa).

Euskaraz eman beharreko lanpostuetara lehiatuz gero, ez da euskara titulurik baloratuko. Ez da baloratuko ez unibertsitateko titulaziorik, ez Hizkuntzen Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiririk, 2.3 eta 2.4 ataletan baloratzen direlako.

Zein ziurtagiri ez dira baloratuko azpiatal honetan?

Ez da inolaz ere baloratuko ez unibertsitateko titulaziorik, ez Hizkuntzen Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiririk; izan ere, haien balorazioa berariaz jasota dago merezimendu baremoko 2.3 eta 2.4 ataletan, hurrenez hurren.

ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDAK

Hautapen prozedura bukatutakoan, aldi baterako kontrataziorako zerrenda berriak eratuko dira?

Bai. Oposizio-lehiaketa bukatu ondoren sortzen diren aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak arau honi jarraikiz kudeatuko dira, alderdi guztiei dagokienez: Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasleen lanpostuak aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen foru agindua, zerrenda horiek sortzen diren unean indarrean dagoena.

Zer araudik erregulatzen du aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenden eraketa?

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko [37/2020 Foru Agindua](#)k arautzen du gai hau, foru agindu horren bidez onetsi baitziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

Lehen probako lehenbiziko ariketara bakarrik aurkezten banaiz, badut eskubidea zerrenda orokorrean sartzeko?

Izangai bat deitutako lehen ariketara aurkezten bada eta ez bigarrenera, eta puntuazio positiboa lortzen badu lehen ariketan, kontratazio-zerrenda orokorrean sartuko da, betiere aldi baterako kontrataziorako izangaien kudeaketa-arauak erregulatzen dituen foru aginduan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen baditu.